

202. zenbakia

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

**Hezkuntza politika:
elkarrekin eta
elkarrengandik ikasten**



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Hezkuntza	943 25 50 06



Ale honetan zer?

Ametsen etorrera.....	3
Elkarrizketa: Leire Goenaga	5
Ikastetxeekiko elkarlana	8
Iraurgi Berritzen proiektuak	13
Herritarren formazioa	14

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu
Azpeitian Zer? aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria
943 15 71 85 (Alkatetza) telefonoan.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · **Egilea:** Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala · **Diseinua:** Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuen erregistroa, errolda agiria atera, eskaera orokorrak zein lizentzia eskaerak edo kontsultak egiten dira bertan. Neguko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 07:30etatik 14:30era izaten da zabalik; ostegunetan salbu. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara, etenik gabe, eskaintzen zaie zerbitzua herritarrei.



Haur jaioberrientzako liburua: “Ametsen Etorrera”

“Ametsen etorrera” libururen bidez, haur jaio berriei Azpeitia balore hezitzaileen bidez ezagutarazi nahi zaie. Ipuina Felipe Murillok idatzi du eta Olatz Alkortak osatu ditu ilustrazioak

Baloreetan heztea helburu, herri hezitzailearen filosofiaren baitan, urteak daramatzate elkarlanean Azpeitiko Udalak, herriko ikastegiekin eta beste hainbat herri eragilekin. Pausoz pauso lanketa desberdinak abiatu dituzte, eta oraingoan haur jaio berrientzako liburua osatu dute. Horretarako, Felipe Murillo eta Olatz Alkorta sortzaileak izan dituzte bidelagun.

Liburuaren lanketak aurreikusi baino luzeago jo du, pandemia tarteko. Prozesua, ordea, aberasgarria ere izan da, eragile askorekin lantzea lortu delako. Jendaurreko aurkezpena joan den martxoan egin zen. Ordutik azpeitiar jaio berriek udaletxean errolatzean jasotzen dute; gainontzakoek Gazte Informazio Bulegoan eskura dezakete, 5 euroren truke.

HERRI HEZITZAILEAREN GARRANTZIA

Haurrak zer baloretan hezi nahi diren lantzeko beste tresna da liburua; izan ere, jaioberriei banatzen zaien arren, familia osoari zuzenduriko tresna da, haur horren anai-arreba, osaba-izebek eta aitona-amonek ere irakur baitezakete ipuina. Helburuen artean, komunitate sena garatzea, sarea eraikitzea eta Azpeitia hezkidetzailaegoa lortzea daude.

Haurrak zer baloretan hezi nahi diren lantzeko beste tresna bat da liburua.

ANTZINAKO KONDAIRA BAT OINARRI

Garai bateko kondaira zahar baten hariari tira diote ipuinaren edukia lantzeko; alegia, garai batean festarako edo ekitaldi bereziren baterako deia egiteko, bi txalaparta jartzen omen ziren, bat Oñatzen, eta bestea Izarraizpen, elkarrekin komunikatzeko. Deia erantzunez ibilbidea egiten da liburuan zehar, Azpeitia zeharkatuz.

Horretan oinarrituta, Olatz Alkortak ilustrazioak landu ditu, zenbaitetan gertuko argazkiak ere atxikita.

IPUINA ENTZUN ERE EGIN DAITEKE

Ipuina, irakurtzeaz gain, entzun ere egin daiteke horretarako jarritako QR bidez. Entzuteko aukera jarri da haur txikienei zein gurasoek euskara ez dakiten etxeetan ere ipuina ezagutu ahal izateko aukera eskaintzeko herriko etxe guztietan. Ipuinaren narrazioa, gainera idazleak berak, Murillok, grabatua da.





“Jaiotzen garenetik azken eguneraino ari gara elkar hezten, eta udalaren ardura da baliabideak jartzea”

Leire Goenaga,
Hezkuntza batzordeburua

Hezkuntza herritar guztion ardura da: haur, gazte zein heldu, familiak eta norbanakoak.

Hezkuntzaz ari garenean hezkuntza arautuaz ari garela pentsatzen dugu beti, baina hori baino gehiago da; hezkuntza arautuan udalen eskumena murrizta den arren, gainerako alderdietan baliabideak jarri eta hezkuntzaren zeharkakotasuna bizitzako adin eta alderdi guztietan landu nahi du Azpeitiko Udalak.

Egia da, hezkuntza arautua Eusko Jaurlaritzaren eskumena denez, Udalaren eskumena oso murrizta da, baina hala ere, herri batean gaude, eta herriak gaur egun lau ikastetxe ditu eta Udalaren betebeharra ere bada lau ikastetxe hauekin batera lan egitea. Hezkuntzara haur guztiek izan behar dute sarbidea, guztiontzako eskola, hezkuntza publikoan eta bere azpiegitura zein hezkuntza programan eragiteko neurri eta proiektuak garatzen ditugu.

Baina, hezkuntza ikastetxeetatik haratago doan zerbait da.

Hori da. Ulertu behar da hezkuntza ez dela hezkuntza arautura bakarrik mugatzen, ez dela soilik ikastetxeen ardura edo ikastetxeko irakasleen ardura, edo eskolaz kanpoko ekintzetakoa. Herritar guztion ardura da hezkuntza: haur, gazte zein heldu, familiak eta norbanakoak.

Ertz asko ditu beraz, hezkuntzak, eta beharrezkoa ikusi duzue hezkuntza teknikaria izatea.

Bai, azken finean, arlo askotatik eragin nahi da hezkuntzan. Hezteko prozesu bat da, eta modu integral eta koordinatuan hori gauzatu ahal izateko teknikari baten beharra genuen. Hala, ikastetxeekin, hezkuntza ez formaleko eragileekin eta Azpeitiko Udala berak ere hezteko eskaintza izateko helburuz daukagu duela zenbait hilabetetatik hezkuntza teknikaria.

Bere zereginak izango dira, batez ere, ikastetxeekin elkarlana gauzatzea, zehaztea eta ziurtatzea; abian dauden egitasmoei jarraipena egitea,

Ikastetxeek funtzio garrantzitsua betetzen dute, eta haiekin jardun beharra dauka Udalak, elkarrekin programak eta egitasmoak gauzatu.

koordinazioa eta zuzeneko harremana, hau da, zubi lana egitea. Eta horrez gain, hezkuntza formaletik kanpoko eragileekin ere harremana gauzatzea. Eta formazioaren arloan ere lan egitea. Azpeitiko Udalarentzat garrantzitsua da etengabeko formakuntza eta horretarako baliabideak herritarrei herrian bertan eskaintzeko apustua egina dugu. Teknikariaren bidez hori indartu nahi dugu.

Hezkuntza alorreko politikan, alderdi guztietan eragiten duzue, ikastetxeekin lankidetzan, herritarren formazioan, herri hezitzailea programan. Azalduko dizugu nola gauzatzen diren lankidetzak eta programa horiek?

Ikastetxeekiko lankidetzari dagokionez, ikastetxe bakoitzak bere hezkuntza proiektua edo bere curriculum propioa dauka; hau da, jarraitu beharreko oinarritzko ildoa zehaztuta dauka, beraz, hezkuntza-proiektua zeinek berea egokitzen du. Guk, herri bezala, ikusten dugu ikastetxe bakoitzak funtzio garrantzitsua betetzen duela herriko ume, nerabe eta gazteen hezkuntzan, beraz, haiekin batera jardun beharra dauka Udalak, eta elkarrekin programak eta egitasmoak gauzatu behar ditu, gure herrira egokituko den euskal curriculumean eraginez. Elkarlan horren ardatz diren proiektuak ikastetxeen beharretatik abiatuta prestatzen dira. Hezkuntza Mahaian ikastetxe guztiekin elkartzen garenez, bilera horietan hautematen diren premien arabera antolatzen dira programak, herri bezala daukagun beharrak ere kontuan

hartuta. Gehienbat prebentzioari lotuak izaten dira, edo egungo errealitateak pizten dituen kezka eta beharrei erantzuteko, hezkuntza arautua eta hezkuntza saila iristen ez diren arloetan, udalak erantzukizuna dauka erantzuna emateko eta baliabideak eskaintzeko.

Herritarren formazioaren baitan, langabeziari aurre egiteko zein bizitza osoko jardunarekin lotutako eskaintzak tartekatzen dituzue.

Herritarrentzako formazioaren bidez ematen zaio jarraipena aurreko guztiari, baina hala ere, ez da berdin. Hasieran eskaintzen ziren formazioak teknikoak ziren, langabezian zeuden pertsonen begirakoak, batez ere, eta aurrerago hasi ginen herritarren interes orokorreko formazioa ere eskaintzen: literaturako saioak, kulturako hainbat ikastaro, aukera zabalago, azken finean. Azken urteetan bai zentratu gara langabezian urte asko daramatzan jendearengan, edo formazio oso baxua daukan jendearengan, lan mundura begira batez ere, eta, adibidez, arreta soziosanitarioaren inguruko ikastaroa, titulurik ez eta alfabetatze maila baxua duen jendearentzat; edo oinarrizko konpetentziak hartzeko ikastaro batzuk, baina pixka bat lan mundura sartzeko zailtasunak dituztenak ikasketa maila baxuagatik, eta horiekin ari gara azken aldiaren dextenteko lana egiten. Gainera, azkeneko urteetan, Basazabal formazio zentroa ireki genuenetik zentro horretan ematen dira ikastaro guztiak.

Basazabal formazio zentro homologatua da, gaur egun.

Bai, Basazabal eraikina 2019ko urtarrilean ireki genuen. Hasieratik, beheko solairua turismora bideratzeko eta goikoak formaziora bideratzeko helburua izan dugu. Hala eraiki dugu Basazabaleko Formazio zentroa. Gela horietako asko Lanbidek homologatuak ditu ikastaroak emateko, titulazio formala eskaintzen dutenak: arreta soziosanitarioko

ikastaroa, kasu. Gainera Udalak Zabaltzen Sarturekin daukan hitzarmenaren baitan, egoera zaurgarrian dauden herritarrekin lan egiten dutenez, ikastaro batzuk ditugu hitzartuta, akreditazioa dutenak eta Lanbiden homologazioa eskatzen dutenak. Beraz, bertan arlo desberdinetako ikastaro jardunaldi saio eta bestelako eskaintzen saiatzen gara. Udalarentzat oso garrantzitsua da herrian formazioa eskaintzea, batez ere herritarren geroari begira.

Herri hezitzailea filosofiaren baitan hainbat lanketa ere egiten dituzue herritarrek baloreetan hezteko helburuarekin, zergatik da hain garrantzitsua?

Aurreko guztia Herri Hezitzailearen filosofiaren baitan kokatu behar dugu. Jaiotzen garenetik hiltzen garen arte hezten ari gara, ez gara eskolan eta etxean bakarrik hezten, ez eta adin jakin batean bakarrik ere. Egia da bizitzako etapa batzuetan askoz garrantzi handiagoa duela heziketak, lehenengo urteetan batez ere, eta horri begira egin zen haur jaioberrientzako liburuarena. Garrantzitsua da non jaio zaren jakitea, herri hau ez delako kasualitatez den bezalakoa. Horrek konpromiso bat ere badakar, herriaren eraikuntzan etorkizunean ere parte hartuko duten herritar aktibo eta kritikoak nahi ditugulako. Hortaz, hori txikitatik landu behar da, eta txikitatik eman behar zaie parte hartzeko aukera.

Txikitatik parte hartzean hazteko helburuz, Haurren Kontseilua sortu da.

Herri hezitzailearen lanketaren baitan, sortu da Haurren Kontseilua. Bertan maila desberdinetako ikasleek biltzar gisako bat egiten dute hilean behin, herrian ikusten dituzten beharren inguruan hitz egiten dute eta, ondoren, udalari helarazten dizkiote kezkak eta proposamenak. Beraz, halako gune hauen bidez ere parte hartzeko kultura sustatzea bilatzen dugu, eta txikitatik uler dezaten udala tresna bat dela, eta haien esku ere badagoela.



Ikastetxeekin elkarlanean garatzen diren proiektuak

Azpeitiko Udalak herriko ikastetxe guztiekin elkarlanean, hainbat hezkuntza proiektu lantzen ditu urtez urte. Arlo ezberdinetako hezkuntza beharrei erantzun eta egunerokoan sortzen diren garaiko erronkei aurre egitea izaten da helburua. Hainbat arlotako proiektuak daude gaur egun abian.

dira bakoitzaren errealitatea kontuan hartuta. Programazio horretan larunbatetako ekintzak ere jasotzen dira, eta horien antolakuntzan herriko hainbat kirol klubek, Gipuzkoako hainbat federaziok eta zenbait enpresa pribatuk ere hartzen dute parte asistentzia teknikoa eskainiz.

Kirol kontseiluaren asteroko bileretan egiten dute programaren balorazioa beharrezkoa denean egokitzeke. Gainera, guraso eta monitoreentzat ere formazio ekintzak antolatu izan dira noizbehinka.

Kirola

ESKOLA-KIROLA PROGRAMA

Programa honen helburua jarduera fisikoaren bitartez ikasleen heziketa-garapenean eragitea da.

LH1 eta LH6 arteko ikasleei zuzendurik dago (6-12 urte) eta ikastetxeen eta Eskola kirol Kontseiluaren bidez landutako programan oinarritzen da. Asteazkari zeharreko saioak ikastetxe bakoitzean antolatzen

GAZTE KIROLA PROGRAMA

Jarduera fisikoa eta askotariko kirola praktikatzeko antolaturiko programa da.

Programa hau LH6 mailan amaitzen da, eta behin amaituta, kirol federatua edo banakako kirolaz harago, lagunartean jarduera fisikoa eta askotariko kirolean jardun nahi duten gazteei (12-18 urte) bideraturiko programa da. Programa honetan, gazteek erabakitzen dute hilero zer ekintza egin nahi dituzten.

IGERIKETA SUSTATZEKO KANPAINA

Programa honen baitan igerian ikasteko ikastaroak eskaintzen dira. Lehen Hezkuntzako 1., 2., 3. eta 4. mailako ikasleei zuzendurik dago, eta adin horietako haurrek, haien egoera ekonomikoa edo fisikoa zeinahi dela, jarduera/instalazioetara sarbidea izatea eta oinarritzko jarduera fisikoa sustatzea ditu helburu.

KIROL ORIENTAZIO ZERBITZUA

Jarduera fisikoaren eta kirolaren bitartez ikasleen hezkuntza integralari eta osasunari laguntzeko zerbitzua.

Zerbitzu hau Azpeitiko herritar guztiei zuzendua dagoen arren, helburuetako bat da irakasleek orientazio-zerbitzua hezkuntza-baliabide gisa erabiltzea ikasleen hezkuntza integrala eta osasuna sustatzeko.

Hezkidetza**HEZKIDETZA ETA TRATU ONAK BULTZATZEKO ZERBITZUA**

Pertsonen arteko harreman osasuntsu, goxagarri eta parekideak lortzeko prozesu pertsonal eta kolektiboak sustatzea da zerbitzuaren helburu nagusia. Tratu onen jardunbidea sustatzeko herriko hezkuntza-komunitateko eragileekin dihardu. Bestalde, berdintasunaren alde eta bazterketen aurka dabilen eragileen arteko lankidetza sarea indartzea ere badu xede.

Ikastetxeak eta herriko hezkuntza komunitate osoa dira programa honen hartzaileak: LH, DBH eta Batxilergoko ikasleak, irakasleak eta gurasoak.

Ikastetxeetan ikasleekin lantzen dituzte irakasleek gaiak eta horretarako transmisio bilerak egiten dira esku-hartzearen aurretik eta ondoren. Halaber, gurasoei ere eskaintzen zaizkie nerabezaroaren inguruko saioak.

Euskara**ETORKIZUN EGITASMOA**

Egitasmoaren helburua da haur eta gazte etorkinek euskara ikas dezaten bide eraginkorra eskaintzea Azpeitiko gizarte-bizimoduan errazago txertatzeko eta egunerokotasunean euskaraz komunikatzeko eta moldatzeko gutxieneko euskara-maila lor dezaten.

LH eta DBHko ikasleei zuzenduta dago, Euskara Patronatuak sustatzen duen ekimen hau, eta saio horietan parte hartzeko euskaraz komunikatzeko zailtasunak edukitzeaz gain, ikastetxeetako irakasleek bideratu behar dituzte.

ETORKIZUNeko UDA

Etorkizuneko uda egitasmoa Euskara Patronatuak sustaturiko ekimena da, eta helburu du haur eta gazte etorkinei erakustea euskara ikastegian eta euskaltegian ez ezik udan kalean, aisialdian eta jolasean ere erabil daitekeela.

Euskaraz komunikatzeko zailtasunak izateaz gain herriko udaleku irekietara joateko mugak dituzten LH eta DBHko ikasleei zuzenduta dago.

HARRERA-SAIOAK

Ekimen honen helburua da ikasle etorkin iritsi berrien ikasprozesua bizkortzeko, ahozkoaren ulermenaren jabekuntza eta ikaslearen inklusioa ahalik eta lasterren lortzea.

Euskara maila A0 duten LH eta DBHko ikasle iritsi berriei edo hilabete gutxi daramatenei zuzenduriko jarduera da. Saioak ikastetxeetan bertan eman behar dira, bertako ikasleek parte hartu eta inklusioan lagun dezaten. Saiotan jolasak eta propio sortutako materiala erabiltzen da.

HEDATU

Euskararen arnasmuneei buruzko proiektua da Hedatu. Oso ekimen berezia da, irakasleei, ikasleei eta gurasoei zuzendurikoa baita, eta helburu

Ikastetxeekiko elkarlana

zehatzekoa: Azpeitia bezalako arnaguneek euskararen sustapenean duten garrantziaz jabetzea; euskal hiztun gisara herritarrek jokatzeko duten lidergo paperaz ohartzea eta euskal hiztun moduan ahaldundzea.

Ekimen honen barruan, HH5 eta LH1erako ikasleentzako unitate didaktiko bat, LH4 eta LH6rako unitate didaktiko bana eta DBH3 eta DBH4rako seina unitate didaktiko jasotzen dira. Horrez gain, UEMAko teknikariek eskaintako tailer presentzialak ere bai: LH2ko ikasleentzat, Ispiluari Begira tailerra; LH6ko ikasleentzat, Zatoz tailerra eta DBH2ko ikasleentzat, Bixitailerra.

Irakasleentzat soziolinguistikari buruzko eta ikasgelan euskarari eusteko estrategien alorreko formazioa eskaintzen da, eta gurasoentzat, estrategiei buruzko saioa.

C1 MAILA

Euskara Patronatuak sustaturiko programa honen helburua da C1 mailako titulua lortzeko prestakuntza eskaintzea Batxilergoko ikasleei.

Asteaz aurretik aurreko bi orduko saio bat jasoko dute ikasleek taldean, eta horrez gain, bakarkako lan gidatua egin ahal izango dute. Etxean bakarka egindako lanari tutore batek egingo dio jarraipena, online nahiz aurretik aurre. Lanketa honetan parte hartu ahal izateko, ikasleek C1 maila izan behar dute entzumen eta irakurmenean eta B2 maila, gutxienez, idazmenean eta mintzamenean.

C1 MAILA UDAN

Aurretik lanketaren helburu berberak eta hartzaile berberak ditu ikastaro honek, baina metodologia aldetik desberdina da.

Ikastaroa ekainaren azken astetik uztailaren azken astera luzatuko den modalitatean, aurretik aurretik 110 ordu inguru jasoko dituzte egunean 5 orduko saiotan.

Uztailan zehar hiru astez eta irailean lau astez, gainera, autoikaskuntzako 70 ordu beteko dituzte.

GURASOAK EUSKALDUNTZEN

Ikastetxeetako gurasoei zuzenduriko ikastaro honen helburua da, gure hizkuntzak seme-alaben heziketan duen garrantzia kontuan izanda, gurasoek euskalduntze-prozesuari ekitea edo duten euskara mailan aurrera egitea.

A1 mailatik C2 mailara arteko ikastaroak izango dira gurasoei soilik zuzenduak eta behar zehatzei erantzun dieten edukiak.

Kultura eta aisia

LIBURUTEGIA

Herriko liburutegia eta bertako baliabideak ezagutaraztea, horren bidez, informazio orokorra eta kulturarako sarbidea eta irakurzaletasuna sustatzeko.

Haur eta gazteei zuzenduriko programa da

GU ERE BERTSOTAN

Bertsolaritzaren bidez, kultura, musika eta trebetasun pertsonal eta sozialak lantzeko saioa.

Ikastetxeetako LH5 eta LH6 eta DBH1eko ikasleei zuzenduriko saioak dira, Bertsozale Elkarteko irakasle aditu bat, bi astez behin gelara joango da eta, ondoren, irakasleekin lantzen dituzte edukiak. Parte hartzen duten ikastetxeek Bertsozale Elkarteko gela birtualerako sarbidea dute material guztia eskura edukitzeko.

Proiektu hau ikastetxeek ordaintzen dute osorik, baina, ondoren, Udalak proiektuaren % 50 finantzatzen du dirulaguntzen bidez.



LUDOTEKA

Ikasturte guztietan eskainiko den zerbitzu koordinatua da.

HH5 mailetakoko ikasleen kasuan, zerbitzu hau ezagutzeko, irakasleekin txangoak egiten dituzte eskola-ordutegiaren barruan.

LH1-LH6 mailetakoko ikasleen kasuan, saileko koordinatzaileak bisitatzen ditu gelan bertan zerbitzuaren berri emateko.

Ikastegietako zuzendari eta zikloetako arduradunekin koordinatzen dira txandak eta orduak.

GAZTELEKUA

Ekintza hau ere ikasturte guztietan eskainiko den zerbitzu koordinatua da.

Honakoan, DBH1 eta BATX2 arteko ikasleei zuzendurikoa da eta haien geletatik igarotzen dira Gaztelekuko hezitzaileak zerbitzuaren berri emateko.

Herri hezitzailea

HAURREN KONTSEILUA

Haurren kontseiluaren bidez haien parte-hartze aktiboa sustatu nahi da parte hartzeko kanal iraunkor bat finkatuz.

Haurren autonomia garatzea, haurren erabakitze gaitasuna bultzatzea, haurren eta helduen arteko botere-harremana birpentsatzea, parte hartuko duten norbanakoen eta taldeen arteko elkarlana bultzatzea eta haurrek jendartean izan dezaketen eragiteko gaitasuna ulertzea eta garatzen laguntzea dira proiektuaren helburuak.

Herriko ikastetxeetako LH5 eta LH6ko haurrei zuzendurik dago, eta ikasturte osoan egongo da martxan. Ikastetxe bakoitzean ordezkari bat izendatuko da, eta ludotekako hezitzaileen laguntzarekin egingo dituzte saioak hainbat gai lantzeko.

NERABEEN PARTE-HARTZEA

Herriko ikastetxeetako DBH1-DBH3 mailetakoko ikasleei zuzenduriko ekimena, haien parte-hartze aktiboa sustatzeko. Ekimen honen helburu orokorrak dira nerabeen beharrak, iritziak eta

Ikastetxeekiko elkarlana

proposamenak jasotzea, nerabeen eta hezitzaileen arteko erreferentzia eraketa bat egitea, nerabeen egoerari buruzko diagnostikoa egitea, nerabeen eta haien inguruko sistemen arteko kohesioa hobetzea eta nerabeek herrian parte hartzeko gaitasunak bereganatzea.

Garapena Gaztelekuko hezitzaileen bidez egingo da, ikastetxeetako eta udaleko ordezkariekin, nerabeen guraso eta arduradunekin, herriko eragileekin eta abarrekin koordinatuz.

AZPEITIA EZAGUTZEN

Azpeitiaren historia modu erakargarrian biltzea eta ezagutzera ematea du helburu ekimen honek, horrela, herri curriculuma lantzeko.

LHko ikasleei zuzendurik dago eta hiru lan-koadernoren bidez landuko da:

- a) Nondik gatoz? Nola sortu ginen?
- b) Handitzen handitzen. Jaso dugun altxorra.
- c) Izan zirelako gara. Nora goaz?

Bestelakoak

ESKOLAKO AGENDA 2030

Programa honek jasangarritasuna du ardatz. Horretarako, ezinbestekoa da hezkuntza-komunitateko eragile guztiek parte hartzea eta udalarekin etengabeko elkarlana gauzatzea.

Ikastetxeetako ikasle guztiei zuzendurikoa da eta lan-metodologia zehatz bati jarraituz gauzatzen da ikasturte osoan zehar.

LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEENTZAKO LOGOPEDIA ZERBITZUA

Hizkera-nahasmenduak gainditzeko laguntzea da programa honen helburua. LHko ikasleei zuzendurik dago eta premia duten ikasleek 15na minutuko bi saio izango dituzte astean, bospasei ikasleko taldetan.

GURASO ESKOLAK

Ekimen honen bidez, ikasturtean zehar ikastetxeetan ikasleekin landu diren gaien inguruko hitzaldiak antolatzen dira gurasoentzat. LH eta DBH eta Batxilergoko mailetakoko gurasoei zuzendurik daude hitzaldiak.

Gizarte zerbitzuak

HAURREN BABESGABETASUNA PREBENITZEKO DETEKZIO ETA ESKUHARTZE GOIZTIARRERAKO PROGRAMA

Adingabeen babesgabetasunerako arrisku faktoreak goiz detektatzea eta detektatu ondoren goiz jarduteko eta esku hartzeko ekintzak aurrera eramatea da programaren xedea. Bi helbururekin lan egiten da: profesionalei kasuen inguruko orientazio metodologiak jakinaraztea eta formatze profesionala.

BIZITZARAKO TREBEZIAN ETA ADIKZIOAREN PREBENTZIOAN HEZITZEKO ESKOLA PROGRAMA

Ikasleak hainbat gaietaz hezteko programa da. Besteak beste honako gaiak lantzen dira: , baloreak (emozioak, errespetua, maitasuna, komunikabideak, norberaren irudia...), gizarte trebeziak eta bizimodu osasuntsurako ohiturak, drogen eta adikzioen, sare erabilera eta gehiegizko kontsumoa; teknologi berrien gehiegizko erabilera eta jokia; modu berezian autoestimua, autonomia eta ardurak.



Iraurgi Berritzenen bidez garatzen diren proiektuak

Hezkuntza arloari dagokionez, DBH eta Batxilergoan eragiten du agentziak eskualdeko 5 ikastetxeen beharrezan erantzuteko proiektuen bidez. Oro har, 5 ikastetxek, 30 irakaslek, 400 ikaslek eta 50 eragile sozioekonomiko inguruk hartu dute parte proiektu horietan.

ELKARREKIN ERAIKITZEN

Agentziak dinamizatzen duen eragileen lankidetzaren sarean du jatorria eta hainbat eragilek hartzen dute parte.

Proiektu honen ardatza da ikaslea bere ikasketa-prozesuko protagonista bihurtzea eta hiru helburu nagusi ditu.

1. Ikasleen artean ekintzailetzari lotutako balioak eta gaitasunak sustatzea du; besteak beste, ekiteko edo komunikatzeko gaitasuna.
2. Irakasleei eskualdeko egoera sozioekonomikoari buruzko informazioa helaraztea, lan munduan sartu aurretik, dagozkien erabakiak ahalik eta informazio gehienarekin hartu ahal izateko.
3. Irakasleei metodologia berritzaileekin esperimentatzeko aukera eskaintzea eta prozesuan zehar irakaskuntza metodologia berritzaileak aplikatzea.

Prozesu horretan DBHko 3. eta 4. mailako ikasleek hartzen dute parte, eta talde txikitan elkartuta, Iraurgi Berritzenek proposatutako erronka errealak hausnartzen eta lantzen dituzte. Erronka horiek eskualdeko eragileak egunerokoan izaten dituzten erronketan oinarritzen dira.

PROIEKTUGINTZA ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA IRAKASGAJETAN

Proiektu honek hiru helburu nagusi ditu:

1. Eskualdeko gazteen artean zientzia eta teknologia gaitasunak sustatzea. Horretarako, zientzia eta teknologia arloko proiektuak lantzen dituzte ikasturtean zehar ikasleek.
2. Ikasleek metodo zientifikoan esperimentatzea eta oinarritzko ezagutzak barneratzea.
3. Irakasleei proiektuen gidaritzan prestakuntza eskaintzea eta kontzeptu horiek aplikatzen laguntzea.

Prozesu honetan DBH mailako ikasleek hartzen dute parte, eta, talde txikitan elkartuta, irakasleek proposatutako erronkak lantzen dituzte. Era berean, Elhuyarren eta honek duen unibertsitateetako ikertzaile boluntarioen laguntza izaten dute irakasleek proiektuen garapenerako.

Proiektua bi fase nagusitan antolatzen da.



Herritarren formazioa

Hezkuntzaren garrantziak, aipatu dugun bezala, adin guztietako jendea zeharkatzen du: jaio berriak, ikasleak, gazteak, helduak eta nagusiak.

Zahartze aktiboa bultzatzeko, besteak beste, adinekoentzako profesionaltasun agiriak eskuratzeko ikastaroak, Lanbidekoak eta zahartze aktiboa sustatzeko kultur ikastaroak eskaintzen ditu Udalak Lanbide eta Deustuko Unibertsitatearekin batera, besteak beste. Udalak eskaintzen duen formazioaz gain, Helduen Heziketa Iraunkorra (EPA) ere bada Azpeitian.

Adinean aurrera egin arren, adineko jendea gero eta aktiboagoa da, eta garrantzi handia hartzen du gizarte-sareak mantentzeak eta gorputza zein burua aktibo edukitzea. Halako ikastaroen bidez, adinekoentzako eskaintzari eutsi nahi zaio.

ZAHARTZE AKTIBOA

Zahartze aktiboa sustatzeko helburuz, ikasturte honetan literaturaren inguruko ikastaroa antolatu da, herritar batzuen eskaerei erantzunez Ikastaroaren helburu nagusia ikasten gozatzea eta gozatuz ikastea da; pertsona guztientzat zabalik dagoen hezkuntza-gunea da, eta bertan, esperientziak trukatzear gain, zentzu kritikoa eta parte-hartzailea sustatu nahi dira, garapen pertsonala lortzeko eta bizialdi osoko ikaskuntzarako beharrezkoak diren baliabideak eta tresnak errazteko. Hainbat gai jorratzen dira ikastaro horietan, eta aisialdirako aukera ez ezik, literaturaren, artearen, musikaren eta historiaren bidez kultura- eta gaurkotasun-gaietara hurbiltzen laguntzen dute.

PROFESIONALITASUN AGIRIAK

Azpeitiko Udalak langabeziari aurre egiteko helburuz, profesionaltasun agiriak lortzeko hainbat ikastaro eskaini izan ditu. Arreta soziosanitarioari buruzko ikastaroa da horietan nabarmenena. Urteak dira formazio hori herrian eskaintzeko apustua egin zuela udalak. Gaur egun, 'Mendekotasuna duten pertsonen laguntza soziosanitarioa ematea gizarte erakundeetan' izeneko ikastaroa eskaintzen jarraitzen du eta momentu honetan 15 lagun ari dira formazio hori jasotzen.

Ikastaro hau Zabaltzen-Sartu elkartearekin lankidetzan eskaintzen du Udalak, eta zaintza-lanetan aritzen diren eta ikastaroa egin nahi dutenei egokitutako ordutegian ematen da Basazabal jauregian. Formazio hau jasotzen dutenek Lanbidek homologatutako Zaintza lanetarako Arreta Soziosaintarioko ziurtagiria jasotzen dute ikastaroa amaitzean. Ikastaroak, orotara, 370 orduko iraupena du eta teoria eta praktikaldiak uztartzen ditu.

Zaintza lanetan dihardutenei formazio homologatua eskaintzea garrantzitsua da Udalarentzat; izan ere, horrela, lanbidea duintzen da eta lan-baldintzak hobetzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko aukera eskaintzen zaie arlo horretako langileei.

**Aisialdirako aukera
ez ezik, literaturaren,
artearen, musikaren eta
historiaren bidez kultura-
eta gaurkotasun-gaietara
hurbiltzen laguntzen dute.**

EPAREN FORMAZIO ESKAINTZA

Helduen Heziketa Iraunkorraren helburua da 18 urtetik gorako ikasleei, bere prestakuntza akademikoa osatu edo zabaltzeko, hezkuntza zein profesional maila desberdinetarako sarbidea izateko, eta gizartean zein lan munduan promozioa zein parte hartzea eskaintzea.

Horretarako, formazio eskaintza zabala du. Alde batetik oinarrizko alfabetizazioa bermatzeko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulazioa ateratzeko ikastaroak eskaintzen ditu. Atzeritarrek nazionalitatea eskuratzeko egin beharreko azterketaren prestaketa saioak ere eskaintzen dira bertan; baita, euskara, gaztelera eta ingelera ikasteko oinarrizko formazioa ere.

Matrikulazioa ekainaren 20tik 30era eta irailaren 1etik 15era izango da irekita. Epe horietan 9:00etatik 13:30era bitartean Joxe Artetxeko 2 zenbakian (Perretxikoan) egin daiteke izen ematea. Informazio gehiagorako 943 81 22 03 telefono zenbakira ere dei daiteke.

Azpeitia
Denontzat

**SUSTAPEN
EKONOMIKORAKO
LAGUNTZAK**

**550.000€ herriko
ehun ekonomikoa
sustatzeko**

www.azpeitia.eus

